



Urretxuko udala



## ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA.

### ***I. XEDAPEN OROKORRAK***

#### **1. artikulua.-**

Entitate lokal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

#### **2. artikulua.-**

Ordenantza hau entitate lokalaren lurralde eremu osoan aplikatuko da.

### ***II. ZERGAGAIA***

#### **3. artikulua.-**

Administrazio Lokalaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaia, dela eskatua izan delako, dela partikularren egintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka probokatu delako.

### ***III. SUBJEKTU PASIBOA***

#### **4. artikulua.-**

1.- Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2.- Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

- a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbitzu edo jarduerengatik ezarritako tasetan: higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.
- b) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: obren eraikitzaileak edo kontratistak.



Urrtxuko udala



- c) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien prebentzioagatik, eraikuntza eta eraipen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenimendua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.

#### **5. artikulua.-**

Tasak ordaintzera behartuta daude:

- a) partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.
- b) partikularrek eskatu ez baina, horien egintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, egintza edo hutsegite horiek leporagarri dituztenak.

#### **6. artikulua.-**

Ordenantza honetatik eratorzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak ere erantzungo dute.

### ***IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK***

#### **7. artikulua-**

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

### ***V. OINARRI EZARGARRIA***

#### **8. artikulua.-**

Oinarri ezargarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

### ***VI. KUOTA***

#### **9. artikulua.-**

Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

### ***VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA***



**Urretxu**ko udala



#### **10. artikulua.-**

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

#### **VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

#### **11. artikulua.-**

Tokiko Administrazio kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

#### **IX. TASEN KUDEAKETA**

#### **12. artikulua.-**

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

#### **X. AMAIERAKO XEDAPENA**

Ordenantza hau eta bere eranskina ondoren aipatzen den egunean onartu zen behin betiko, eta 2015eko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

#### **XI. ERANSKINA**

Bilkuraren data: 2014ko urriaren 30a.



**A epigrafea: Zaborra bildu eta ezabatzeko zerbitzua**

	€/ Hiruhilabeteko
<b>1.- Etxetik datozen hondakinak</b>	
1.1. Etxeko zaborra	24,50
<b>2.- Merkatarizatik, janari dendetatik, zerbitzuetatik eta ostalarizatik datozen hondakinak</b>	
2.1. Jatetxeak, janari zerbitzua duten establezimenduak, sukalderako prestaketa, elkarte Gastronomikoak eta antzeko beste establezimendu batzuk	119,00
2.2. Tabernak, pub, garagardotegiak, kafetegiak, croissanteriak, txokolategiak, txurreriak eta antzeko establezimenduak	111,00
2.3. Janari establezimenduak ( <i>fruteriak, harategiak, urdaitegiak, oilasko dendak, arrandegiak, izoztuak, janari dendak, okindegiak, gozotegiak, e.a...</i> )	113,00
2.4. Supermerkatuak eta antzekoak, salmentarako azalera 400 m2 edo gehiago dutenak	593,00
2.5. Hotelak, fondak, pentsioak eta antzekoak	227,00
2.6. Merkataritza eta zerbitzuetako gainontzeko establezimenduak	42,00
<b>3.- Industrietatik datozen hondakinak</b>	
3.1. 5 langile baino gutxiago	96,00
3.2. 20 langile edo gutxiago	164,00
3.3. 100 langile edo gutxiago	206,00
3.4. 100 langiletik gora	411,00

Jarduerarik gabeko lokalei hondakinen etxeko tarifa ezarriko zaie.

**Tarifak kudeatzeko eta aplikatzeko arauak:**

- 1.Kobrantsa hiru hilabetero egingo da.
- 2.Ordainatzeko obligazioa derrigorrezkoa izango da herriko etxebizitzetako eta merkataritza eta industria establezimendu guztietako jabe eta okupatzaile guztientzat, eta inor ezingo da geratu, ez pertsona fisikorik, ez juridikorik, zerbitzu hau ordaintzetik salbuetsita.
3. Edozein tituluren bitartez, etxebizitza baten –bertan bizi edo ez- edo jarduera komertzial, industrial edo zerbitzuetarako lokalen jabe edo okupatzaile diren pertsona fisiko edo juridiko guztiei eragiten die tasa honek.
4. Udalak zaborra biltzeko eskubideak kobratzeko bidezko ordainagiria luzatzen ez badie ere, herriko etxebizitzetako jabe eta okupatzaile guztiek Udalari erroldan sar ditzan jakinarazteko obligazioa dute. Etxe berrietako jabeek, hilabeteko epean egin beharko dute aipatutako eskaera, etxebizitzaren jabe egiten direnetik hasita.
5. Gehienez ere kobrantsa denboraldiko azken lanegunean jakinarazi beharko dira bajak, hurrengo epealdian indar-eragina izan dezaten. Baldintza hori betetzen ez dutenek tasa ordaintzeko obligazioa izango dute. Denda, ostalaritza, industria eta zerbitzuetako baja eguna zergadunak udaletxean jardueraren baja jakinarazten duen eguna izango da.
6. Zergadunaren obligazioa izango da Udalari edo, hala badagokio, enpresa esleipendunari jakinaraztea tasaren erroldan egin nahi dituen elementuen alta, baja eta aldaketak, tasaren kalkulua egiteko.



**B epigrafea: Estolderia publikoaren zerbitzua**

1.- Etxeko erabilera:

m3<9m3	0,24
>9 m3	0,41

2.- Dendak

A mota	0,73
B mota	0,60

3.- Industriala

0,75

- Garajeak:

* Sare orokorreko ura baldin badu, garaje plaza bakoitzeko, gutxienez:	2,81
* Sare orokorreko urik ez badu, garaje plaza bakoitzeko, gutxienez:	2,15

Kobrantsa hiru hilabetero egingo da.

**C epigrafea: Udal hilerriko aprobetxamendu eta zerbitzuak**

* Udal jabetzako hilibietan egindako ehorzketa bakoitzeko, hamar urteko epean:	343,00
* Panteoian ehorzketa egiteagatik:	230,00
* Panteoia edukitzeagatik, urtean:	28,00
*Nitxoetako gorpuzkinak atera edo sartzeagatik:	149,00
* Panteoietako gorpuzkinak atera edo sartzeagatik:	149,00
* Panteoi bereko bi gorpuzkin edo gehiago ateratzeagatik (bakoitzeko):	149,00
* Gorpuzkinak erraustea:	149,00
* Bi gorpuzkin edo gehiago errausteagatik (bakoitzeko):	149,00
* Kolunbario kontzesioa, gehienez ere 10 urte:	236,00

**D epigrafea: Merkatu eta merkatu txikien udal zerbitzuak**

* Bertako produktuen salmenta: metroko eta eguneko	0,65
* Postua: metroko eta eguneko	1,80
* Argindarraren hartunea (urteko tarifa)	5,25

Kobrantsa hiru hilabetero egingo da.

**Tarifak aplikatzeko arauak**

Gaur egun izaera iraunkorrez okupaturik dauden postuak errespetatu egingo dira. Libre daudenak, Alkatezari zuzendutako idatzi baten bidez eskatuko dira. Emakidak, urte guztirako izendatutako kuota ordaintzeko baldintzarekin emango dira.

**E epigrafea: Autotaxien eta alokairuko gainerako ibilgailuen lizentziak eta administrazio baimenak.**

* Lizentzien emakida, luzapena eta erregistroa:	538,00
* Lizentziak eskuz aldatzeko baimena	538,00
* Lizentzien erabilera eta ustiaketa:	43,00
* Ibilgailuaren aldaketa: lizentzia bakoitzeko:	19,00



Urretxuko udala



### **F epigrafea: Hirigintza lizentziak**

Lizentzia txikien tramitazioa	41,00
Lizentzia haundien tramitazioa	395,00
Aurri espedientearen tramitazioa	772,50

Subjektu pasiboak irekitzeko baimena eskatzeko momentuan, aldez aurreko jakinarazpena edo aitorten erantzulea aurkeztean sortuko da tasa.

### **G epigrafea: Agiriak onartu eta egitea**

Hirigintza kontsultak	36,00
Enkanteetarako gordailuak, emakidak, udal obra edo zerbitzuen esleipen zuzenak, behin-behinekoak nahiz behin betikoak	27,25
Dokumentuen kopiak CDn	8,00

### **H epigrafea: Establezimenduen jarduera eta instalazioa eta irekitzeko baimena**

1. Establezimendu berriak: 355,00

2. Obrak direla eta, lokal aldatzeak, irekitzeko baimena izanez gero, aurreko kuotaren %50eko hobaria izango du, beti ere hasierako jarduera haunditzen ez bada.

3. Jenero edo material biltegiak, beti ere irekitako denda edo industriei badagozkie, 1. puntuan ezarritakoaren arabera, kasuan kasuko jarduera nagusiari legezkiokkeen kuoten %75eko hobaria izango dute.

4. Beren jarduera haunditzen duten establezimenduek 1. puntuan adierazitako portzentaiaren arabera ordaindu beharko dute zerga.

*Kasinoak, bingoak	2.242,00
*Dantzalekuak	2.661,00
*Zine aretoak	2.661,00
*Hotelak, egoitzak	1.029,00
*Jatetxeak, jatetxe-kafetegiak	1.023,00
*Tabernak, kafetegiak	668,00
*Pub, taberna musikadunak	1.329,00
*Biltegiak eta jarduera industrialak	717,00
*Banketxeak eta kutzak	3.827,00
*Lokal komertzialak orokorrean	360,00
*Azalera haundiak	3.076,00
* Gimnasioa, squash pistak, arte martzialen eskola eta antzekoak	360,00
*Jolas gelak	669,00
*Garaje kolektiboak, plazako	9,50
*Aldez aurretik jarduera sailkatuari dagokion komunikazioari lotutako jardueren espedienteen tramitazioa	143,00
*Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz eta Kaltegarrien espedienteen tramitazioa, intsonorizazioa egiaztatuz	748,00
*Sailkatutako jardueren espedienteen tramitazioa	286,00



### Tarifak aplikatzeko arauak.

#### 1. Establezimendu berriak

Atal honen barruan sartuko dira, zerga gorabeheretarako, establezimendu berriak, eta baita urtebete baino gehiago itxita egon ondoren berriz irekitzen direnak ere. Jarduera bakoitzari dagokion taula aplikatuko zaio.

#### 2. Berriz irekitzen diren establezimenduak

Atal honen barruan sartzen dira, zerga gorabeheretarako, garai batean irekita egon baina azken aldian, bi hilabete eta egun bat baino gehiagoan baina urtebete baino gutxiagoan, itxita egon diren establezimenduak.

Kasu honetan honako tarifa hauek aplikatuko dira:

- Kaltegarriak ez diren jarduerak: Jarduera berrientzako ezarritako taularen %75.
- IGOKA araudia tokatzen zaien jarduerak: Jarduera berrientzat ezarritako taularen %75, eta horretaz gainera IGOKA espedientea bideratzea kostatako prezioa.

#### 3. Titularitatea aldatzea

Titularra aldatzean, zerga gorabeheretarako, honako kasu hauek izango dira: titularra aldatu arren establezimendua itxi gabe egin izana, edota itxita bada ere bi hilabete baino gutxiagoan egon bada itxita. Halakoetan honako tarifa hauek aplikatuko dira:

- Kaltegarriak ez diren jarduerak: 274,00
- IGOKA araudia tokatzen zaien jarduerak: 274,00 €, eta horrez gain IGOKA espedientea bideratzea kostatako prezioa.

Subjektu pasiboak irekitzeko baimena, aldez aurreko komunikazioa edo aitorten erantzulearen eskaera aurkezteko unean sortuko da tasa. Zergapeko jarduera bati baimenik lortu gabe hasiera ematen zaionean, edo hala badagokio, aldez aurreko jakinarazpena edo aitorten erantzulea aurkeztu gabe, zerbitzua edo hori baimentzekoa den jakiteko jarduera administratiboa benetan hasten denean sortuko da tasa.

Lizentziak iraungitzat joko dira baimena emateko erabakiaren ondorengo hiruhilekoetan esandako jarduera ireki ez bada.

Beste horrenbeste, establezimenduak ireki ondoren sei hilabete baino gehiago itxita badaude.

Aurkeztutako proiektuaren aldaketari baldintzatua dagoen baimen emateak ez du inolaz ere eraginik izango zerga ordaintzeko obligazioan, hori behin sortuta dagoela, ez eta behin baimena emanda edo jakinarazia dagoela, edo jarduera aurretik aitortua dagoela, eskatzaileak bertan behera uzten baldin badu ere.

### I epigrafea: Ibilgailuak inmobilizatzea, erretiratzea eta horien zaintza

#### 1.- Ibilgailuak erretiratzea:

* Lan orduetan erretiratzea:	108,00
* Gau./fest. orduetan erretiratzea:	145,00
* Erretiratu gabeko irteera lan orduetan:	65,00
* Erretiratu gabeko irteera gau./fest. orduetan:	103,00

#### 2.- Ibilgailuak inmobilizatzea:

* Inmobilizazioa:	30,00
-------------------	-------



Urrtxuko udala



2.- Gordetzea

* Bizikletak, motoak eta antzekoak, egunean:	6,20
* 1.000 kilorainoko auto, furgonetak eta antzekoak, egunean:	11,70
* 1.000 kilotik gorako kamioi, traktore, atoi eta antzekoak, egunean:	61,50

Hori guztia arau-haustearen salaketagatik legokiokeen isunaren zenbatekoa aparte utzita, eta gainera lehendik ezarrita baina oraindik ordaindu gabe daudenak.

**J epigrafea: Patenteak, plakak eta bereizgarriak ematea.**

* Ibi iraukorrerako plakak emateagatik, urtean:	55,00
---	-------

**K epigrafea: Txakurren harrera eta egonaldia txakur-egoitzan**

Jasotzea	51,95
Egonaldia, eguna edo zatia	5,25
Hiltzea	51,95

**L epigrafea: Txakur arriskutsuen erregistroa**

Inskripzioaren tramitazioa	20,00
----------------------------	-------

**M epigrafea: Etxeetako edateko uraren hornidura, ura emateko lotuneen mantenimendua eta kontagailuak zaindu nahiz aldatzea.**

1.- Etxeko erabilera, hiruhilabeteko:	
- <9 m3 erroldatutako pertsona bakoitzeko	0,61
- >9 m3 erroldatutako pertsona bakoitzeko	1,03
- Zerbitzu kuota, etxeko ura abonatu eta hiruhilabeteko	11,87
2.- Dendak	
- A mota	1,23
- B mota	1,00
- Zerbitzu kuota, ur komertziala abonatu eta hiruhilabeteko	21,57
3.- Industrialak	
- m3-ko, abonatu, hiruhilabeteko	1,25
- Zerbitzu kuota, ur industrialak abonatu eta hiruhilabeteko	21,57
4.- Altak eta hartuneak	20,81
5.- Ur kloratua	0,42
6.- Tratatu gabeko ura	0,30
7.- Kontagailuen kontserbazioa, hiruhil.	
- Etxeko erabilera	3,16
- Erabilera industrialak	8,52
- Erabilera komertzialak	7,58
8.- Hartuneen kontserbazioa, abonatu/hiruhil.	





Urretxuko udala



- Etxeko erabilera 2,15
- Erabilera industrialia eta komertziala 2,15

9.- Saneamendu kanona: hiruhil.

- Etxekoa 0,40€/m3
- Dendak 0,47€/m3
- Industrialia 0,70€/m3

**Tarifak aplikatzeko arauak**

Ordaindu beharrekoaren zenbatekoa ateratzeko, kontagailuak neurtutako metro kubikoak hartuko dira. Kontagailua hondatzea suertatuz gero, eta berria jarri bitartean, azken lau hiruhileko bataz besteko kontsumoa hartuko da likidazioa egiteko.

Udalak nahiz zerbitzuaren enpresa esleipendunak egingo du kobrantza, hiruhilero, eta beti ere ahalegina egingo da ordainagiriaren helbideratzea bultzatzeko.

Zergadunaren obligazioa izango da Udalari edo, hala badagokio, enpresa esleipendunari jakinaraztea altak, bajak eta tasa kalkulatzeko egin nahi dituen aldaketak.

**N epigrafea: Kirol instalazioak, igerilekuak eta udal pilotalekua**

<b>KIROL INSTALAZIOAK</b>		
<b>KIROL INSTALAZIOEN ABONUA</b>	<b>2015 urtea</b>	<b>4. hiruhilabetea</b>
Haurra 3 -18	54,00	16,15
Heldua + 18	108,00	32,30
Ikaslea/Langabetua	54,00	16,15
Jubilatu/Pentsioduna	54,00	16,15
Familiarra	161,00	48,40
<b>A) FRONTOIA</b>		
Kantxa ordubete		10,75
Argiaren erabilera: Orduko		5,40
Ordubete (<18 urte, %50 beherapena)		5,40
Sarrera: Ez ABONATUA		2,15
Profesional pilota partiduak		377,00
Afizionatu pilota partiduak		86,00
<b>B) IGERILEKUAK</b>		
<b>Sarrerak:</b>		
Umeak (3-18 urte)		2,00
Helduak (+ 18 urte)		4,60
Ikasleek eta langabetuek sarreraren %75 ordainduko dute		3,45
10 Sarrerako bonoa		40,00



Urretxuko udala



<b>C) KIROLDEGIA</b>		Abonatu	Ez abonatu
<b>Kirol ikastaroak</b>			
<b>ZIKLO, FIT TONE, ZIKLO-POWER ETA ANTZERAKOAK</b>			
Ikastaro elementu bereziekin (1 ordu/aste) hilabetea	17,20	27,95	
Ikastaro elementu bereziekin (1,5 ordu/aste) hilabetea	27,95	33,35	
Ikastaro elementu bereziekin (2 ordu/aste) hilabetea	33,35	38,70	
Ikastaro elementu bereziekin (3 ordu/aste) hilabetea	38,70	49,50	
<b>AEROBIC, ZUMBA, PILATES, TRX ETA ANTZERAKOAK</b>			
Ikastaro elementu gabe (1 ordu/aste) hilabetea	16,15	21,50	
Ikastaro elementu gabe (1,5 ordu/aste) hilabetea	20,45	27,95	
Ikastaro elementu gabe (2 ordu/aste) hilabetea	27,95	33,35	
Ikastaro elementu gabe (3 ordu/aste) hilabetea	33,35	40,90	
<b>MANTENU GIMNASIA, GIMNASIA ERRITMIKOA, 3. ADINEKO GIMNASIA ETA ANTZERAKOAK</b>			
Ikastaro bereziak (3 ordu/aste) hilabetea	20,45	31,20	
Ikastaro bereziak (2 ordu/aste) hilabetea	16,15	26,90	
3. Adineko gimnasia (2 ordu/aste) hilabetea	16,15	21,50	
<b>Instalazioen alokairuak</b>			<b>&lt;18 urtez azpikoak</b>
Kantxa: ordubete argiarekin	26,90	13,45	
Kantxa: ordubete argirik gabe	16,15	8,05	
Kantxa: ordubete 1/3 argirik gabe	10,75	5,40	
Kantxa: ordubete 1/3 argiarekin	21,50	10,75	
Lehiaketa partidua: ordubete		86,10	
Lehiaketa partidua 1/3 : ordubete		37,70	
Megafonia ekipoa ordubete		21,50	
Gelen alokairuak / ordubete		43,00	
<b>Zerbitzuen prezioak</b>		<b>Abonatu</b>	<b>Ez abonatu</b>
Sarrera kiroldegia	0,00	2,15	
Kirol txartela berria galtzeagatik	2,15	0,00	
<b>SAUNA-LURRIN BAINUA</b>		<b>Abonatu</b>	<b>Ez abonatu</b>
Sarrera Sauna	0,00	4,30	
Bonua: 10 saio	0,00	37,70	
<b>MASAIA</b>		<b>Abonatu</b>	<b>ez abonatu</b>
Federatua	15,10	21,50	
Erabiltzailea	17,20	26,90	
<b>MUSKULAZIOA</b>		<b>Abonatu</b>	<b>Ez abonatu</b>
Muskulazio gela: sarrera	0,00	5,40	
Muskulazio taulen zerbitzua	10,75	10,75	
Muskulazio gela: hilean	0,00	28,00	

Ikastaroetako matrikulazioa egin eta gero ez joateak ez du esan nahi kuota zatitu egingo denik, eta beraz kuota osoa ordaindu beharko da, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.



Urretxuko udala



**O epigrafea: Museo Mineralogikoa**

- Bisita gidatua. Partaideko	3,00
- Turismo mahaiaren sustapena (1)	2,50
- Turismo mahaiaren sustapena (2)	2,00

**P epigrafea: Labeaga aretoaren erabilera**

- Ordu bakoitzeko, teknikariarekin	27,00
- Ordu bakoitzeko, aretoko langilearekin	14,00

Erabilera herriaren intereseko kultur-, gizarte- eta kirol taldeek, eta ikastetxeek egiten dutenean, tarifak %100 murriztuko dira, %100eko hobaria izango dute.

**Q epigrafea: Kulturako gelaren erabilera**

-Orduko	14,00
---------	-------

Erabilera herriaren intereseko kultur-, gizarte- eta kirol taldeek, eta ikastetxeek egiten dutenean, tarifak %100 murriztuko dira, %100eko hobaria izango dute.

**R epigrafea: Kultur etxeko tailerrak**

-Pintura ikastaroa, hilean	15,00
-Marrazki ikastaroa, hilean	15,00

Hileko kobrantza aurretik egingo da, hilaren lehen astean zehar, eta klaseetara joan ahal izateko ezinbestekoa izango da aipatutako datarako ordainketa egina izatea.

**U epigrafea: Jaietako egitarauan iragarkiak jartzea**

- Azaleko iragarkia	288,00
- Kontrazaleko iragarkia	283,00
- Azken orrialdeko iragarkia	654,00
- Orrialde osoko iragarkia	196,00
- Orrialde erdiko iragarkia	144,00
- Orrialde hereneko iragarkia	111,00
- Orrialde laurdeneko iragarkia	84,00
- Orrialde seireneko iragarkia	67,00

**V epigrafea: Hainbat udal ondasun eta tresna erabili eta baliatzea.**

- Hesi metalikoak, unitatea/eguneko	3,10
- Ureztatzeko mangerak, mangera/eguneko	4,65
- Kamioia: orduko	60,65
- Nissan, orduko	36,85
- Oholtza: muntaia eta desmuntaia	80,80
- Oholtza: eguneko	60,65
- Puskatzeko mailua: eguneko	17,20
- Argi-sorgailua, soldadura ekipoa, belarra moztekoa eta beste batzuk	11,55
Eguneko	25,20
Orduko	3,50
- Aluminiozko eskailera: orduko	2,25
- Saneamendu kainaberak: unitatea/orduko	1,25



## Urretxuko udala



- Kamioi txoferraren orduko kostua	24,10
- Obra peoiaren orduko kostua	21,10
- Obretako ofizialaren orduko kostua	23,35
- Kaiolak: unitatea/eguneko	1,10
- Aulkiak: unitatea/eguneko	0,70
- Hautsitako aulki bakoitzeko	13,90

### **W epigrafea: Udal aterpetxea**

-Pertsonako eta eguneko	18,55
-10 lagun edo gehiagoko taldeak	11 € perts/eguneko
-Izaren alokairua	2,55

### **X epigrafea: Auzobusa**

10 bidaiko abonua	3,00
-------------------	------

Salbuetsita daude ondorengo baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- 5 urtetik beherakoak edo 65 urtetik gorakoak
- Desgaitasuna duten pertsonak, mugikortasunaren atalean gutxienez 7 puntu dutenak
- %65 edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak

Salbuespena lortzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Urretxun erroldatuta egotea
- Eskaera-orria betetzea
- NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia aurkeztea, eta hala badagokio, elbarritasun egiaztagiria.